

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### Hizkuntzak ikasteko dirulaguntzetarako deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 887092.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/887092>.

#### HIZKUNTZAK IKASTEKO DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIAREN LABURPENA

Alkatetzaren otsailaren 12ko 34/2026 Ebazpena, 2025-2026 ikasturtean hizkuntzak ikasteko norgehiagoka prozeduraren bidezko dirulaguntzetarako deialdia egiten duena.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: [www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es).

#### Lehenengoa.- Onuradunak

Udalerrian gutxienez urtebete erroldatuta daramaten 16 urtetik gorako pertsonak izango dira onuradunak, ama hizkuntzaz bestelako hizkuntza baten ikasketak egiten ari badira. Adinari dagokion betekizuna dirulaguntzaren xede den ikastaroaren hasieran izan behar da beteta eta erroldatze denborari dagokiona, berriz, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

#### Bigarrena.- Xedea

Edozein hizkuntza (atzerritarrentzat gaztelania ere bai) ikasteko matrikulak eragindako gastuak lagundu ahal izango dira diruz.

Ez dira diruz lagunduko joan-etorrien gastuak, ez eta mantenu eta ostatu gastuak ere, barne egien kasuan.

Pertsona bakoitzak egiten duen ikastaro eta barnetegi adina beka eska ditzake, baina ikastaro bakoitza behin bakarrik lagunduko da diruz.

#### Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko urriaren 26ko bilkuran onetsi eta urtarrilaren 8ko 2/2021 ALHAOn argitaratu ziren.

#### Laugarrena.- Laguntzaren zenbatekoa

Euskara ikasteko ikastaroen matrikularen prezioaren ehuneko 100; gehienez ere 200,00 euro.

Beste hizkuntza batzuk ikasteko ikastaroen matrikularen prezioaren ehuneko 75; gehienez ere 200,00 euro.

200,00 euroko gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion esleipenak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalen banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ezingo da gainditu euskara ikasteko ikastaroen matrikularen prezioaren ehuneko 100, edo atzerriko hizkuntzak ikasteko ikastaroen matrikularen prezioaren ehuneko 75.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da guztiei erantzun ahal izateko.

**Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak oinarrien eranskinetako ereduaren egin behar dira; oinarrietan jasotako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2026ko urriaren 1ean bukatuko da.

**Seigarrena.- Eskaerari erantsi beharreko agiriak**

Ikastaroa egin den zentroaren egiaztagiria; datu hauek jaso behar ditu: hasitako eta amaitutako ikastaroa, ikastaroaren guztizko ordu kopurua eta ikasleak aprobetxatutako ordu kopurua (gutxienez ehuneko 80ko bertaratzea), ikastaroaren hasiera eta amaiera datak eta ikastaroaren guztizko kostua. Barnetegien kasuan, mantenu eta ostatu gastuak banakatuta azaldu beharko dira.

Salbuespen gisa, eta udalbatzaren balorazioaren mende, ehuneko 80tik beherako bertaratze ehunekoa onartu ahal izango da osasun alarma egoeran.

Matrikularen fotokopia eta hura ordaindu izanaren ordainagiria.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Durana, 2026ko otsailaren 12a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*